

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORDIZIAKO UDALA

*Ordiziako txikizkako merkataritza sustatzeko familiei banatutako erosketa bonuen programarako oinarriak.*

Alkatetzaren 2020ko maiatzaren 25eko 469 zk.ko Dekretuaren bidez, Ordiziako txikizkako merkataritza sustatzeko familiei banatutako erosketa-bonuen programaren oinarri arautzaileak eta laguntzen deialdia onartu dira. Jarraian argitaratuko dira, guztiek jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan.

Ordizia, 2020ko maiatzaren 25a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (2301)

*Ordiziako txikizkako merkataritza sustatzeko familiei (etxebizitzako bat) banatutako erosketa bonuen programaren oinarriak.*

2020ko martxoaren 11n Osasunaren Munduko Erakundeak Covid-19ak sortutako egoera osasun publikoaren egoera izateko nazio arteko pandemia egoera izatera igo zuen.

Gaixotasunaren garapena eten nahirik, Ministroen Kontseiluak, 2020ko martxoaren 14ko bileran, 463/2020 Errege Dekretua onartu zuen, Covid-19ak sortutako osasun krisiaren egoera kudeatzeko Alarma Egoera deklaratzeari buruzkoa, eta horren 7. artikuluan pertsonen zirkulazio liberak mugak daude ezarrita. Ondoren, Diputatuen Kongresuak baimena eman dio Gobernuari lehendik dekretatutako Alarma Egoera luzatzeko.

Era berean, Gobernua zenbait errege dekretu lege onartzen joan da, adibidez 7/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 12koa, 8/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 17koa, eta 11/2020 Errege Dekretu-legea, martxoaren 31koa, Covid-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko aparteko presazko neurriak hartzeari buruzkoak.

Osasun krisiaren ondorioz Alarma Egoerak nahitaez ezarritako mugek eragin negatiboak izan dituzte alor ekonomikoan. Testuinguru horretan, alor ekonomikoan erabateko lehentasuna da ekoizpen eta gizarte egitura babestea eta horiei eustea, pandemiaren eragina murrizteko, eta osasun alarma bukatzen denean, lehenbailehen jarduera berreskuratzea lortzea.

Horri dagokionez, Ordiziako zerbitzuak, merkataritza eta ostalariek, Alarma Egoeraren deklarazioaren ondorioz, euren jarduera eten behar izan dute, eta bereziki kalteak suertatu dira egoera horregatik.

Gainera, sektore horrek bere jarduerari berrekin dionean, zailtasunak izango ditu bizirauteko; horregatik, beharrezkotzat jotzen da laguntza ematea sektorea suspertzen saiatzeko, eta erosketak egitean herritarren ohiturak aldatzea bultzatzeko, herrian kontsumitzeko ohitura areagotuz.

Horretarako, Ordizian, Ordiziako merkatarien elkartearekin batera, Udalak Ordizian erosketa bonuen programa babestea pentsatu du, herritarrei kontsumo ondasunak eskuratzen laguntzeko, txikizkako merkataritza indartzeko bitarteko gisa, eta horrekin batera, hiri inguruneak dinamizatzeko.

AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Bases para el programa de bonos de compra repartidos a las familias para fomentar el comercio minorista de Ordizia.*

Mediante Decreto de Alcaldía n.º 469 de fecha 25 de mayo de 2020, han sido aprobadas las Bases reguladoras y convocatoria de ayudas del programa de bonos de compra repartidos a las familias para fomentar el comercio minorista de Ordizia, las cuales se publican a continuación para general conocimiento y efectos.

Ordizia, a 25 de mayo de 2020.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (2301)

*Bases para el programa de bonos de compra repartidos a las familias (uno por vivienda) para fomentar el comercio minorista de Ordizia.*

La Organización Mundial de la Salud elevó el pasado 11 de marzo de 2020 la situación ocasionada por el Covid-19 de emergencia de salud pública a pandemia internacional.

Ante la necesidad de contener la progresión de la enfermedad, el Consejo de Ministros, en su reunión de 14 de marzo de 2020, aprobó el Real Decreto 463/2020, por el que se declara el Estado de Alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19, en cuyo artículo 7 se establecen limitaciones a la libertad de circulación de las personas. Posteriormente, el Congreso de los Diputados ha autorizado al Gobierno a prorrogar el Estado de Alarma previamente decretado.

Asimismo, el Gobierno ha ido aprobando sucesivos reales decretos ley como son el Real Decreto-ley 7/2020, de 12 de marzo, el Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo y el Real Decreto-ley 11/2020, de 31 de marzo, por los que se adoptan medidas urgentes extraordinarias para hacer frente al impacto social y económico del Covid-19.

Las limitaciones necesariamente impuestas por el Estado de Alarma, como consecuencia de la crisis sanitaria, han tenido efectos negativos en el ámbito económico. En este contexto, la prioridad absoluta en materia económica radica en proteger y dar soporte al tejido productivo y social, para minimizar el impacto y lograr que, una vez finalizada la alarma sanitaria, se produzca, lo antes posible, una recuperación de la actividad.

A este respecto, los servicios, el comercio y la hostelería del municipio de Ordizia, como consecuencia de la declaración del Estado de Alarma, se han visto obligados a suspender su actividad y está resultando especialmente perjudicados en las actuales circunstancias.

Además, una vez que este sector ha reanudado su actividad se va a encontrar con dificultades para poder sobrevivir, por lo que se considera necesario prestarles un apoyo para intentar revitalizar el sector e impulsar el cambio de hábitos en la ciudadanía a la hora de realizar las compras, priorizando las compras locales.

Para ello, junto con la asociación de comerciantes de Ordizia Ordizian, el Ayuntamiento ha considerado apoyar el programa Bonos de compra en Ordizia para ayudar a la ciudadanía en la adquisición de bienes de consumo como medio para fortalecer el comercio minorista, y con ello, la dinamización de los entornos urbanos.

Ordiziako erosketa bonuen programaren helburuak hauek dira:

Udalerriko merkataritzan erosketak sustatzea, ondasunak eskuratzeko orduan herritarren ohitura aldaketak larriki eragiten dion sektore baten garapen ekonomikoa bultzatzeko.

Sektorea biziberritzea, herritarrek herrian erosketak egitera animatuz eta guztien artean Ordiziako kaleak bizirik mantendu ahal izateko.

Udalerriko zerbitzu, merkataritza eta ostalaritza jarduera dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

Horrelako laguntzek sor dezaketen enpresa sendotzearen dinamika ez da bateraezintzat jotzen lehia indarren joko askearekin, lehiarako gutxieneko murrizketarekin eta zeharkako etekina merkataritza banaketako enpresa gutxi batzuetan kontzentratzea saihesteko neurriekin egiten baita.

Horregatik guztiagatik, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearekin bat etorritik, honako hau

#### EBAZTEN DUT

Hiri ingurunea dinamizatu eta Covid-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, etenda geratu edo fakturazioan % 75eko murrizketa izan duen txikizkako merkataritza bultzatzeko herritarrek kontsumo ondasunak eskuratzeko bonuak erregulatuko dituzten arau bereziak onartzea. Hau guztia martxan jartzeko Ordizian Ordiziako merkataritza elkartearen bitartez premiazko diru-laguntza zuzenak emango dira, ondorengoak kontuan izanda:

#### 1. artikulua. Helburua.

Deialdi honen helburua Ordiziako hiri ingurunean Ordiziako txikizkako establezimenduetan aurrez aurreko kontsumoa indartzeko familiei banatuko zaizkien erosketa bonuen programaren oinarriak onartzea da, etxebizitza bakoitzeko bonu bana.

#### 2. artikulua. Kreditu erabilgarria.

Deialdi honetarako 93.000 euro erabiliko dira, 1.480.01.430.00.0261 (2020) bonoak herritarrek Covid19 kalteak arintzeko aurrekontu partidaren kargura.

#### 3. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak eta aplikazio eremua.

1. Hala eskatzen duten Ordiziako zerbitzu, merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan norberarentzat eta familierentzat ondasunak erosteko balioko dute, eta herritarren artean banatuko dira (etxebizitza bakoitzeko bat) programara atxikitzen diren establezimenduetan trukatzeko.

Ordiziako etxe bakoitzeko bonu bat banatuko da.

Erosketa bonu horietako bakoitzak 20 euroko balioa izango du (5 euroko 4 bonoetan zatigarria), eta onuradun den herritar bakoitzak 15 euroko gastua egin beharko du 5 euroko deskontua lortzeko, beraz, 10 euro jarrita 15 euroko balioa duten produktuak erosi ahal izango ditu. Lau bonoak batera erabilia, ondorioz, 40 euro ordainduta, 60 euroko balioa duten produktuak eskuratu ahal izango dira. Erosketa bonu bakoitzaren 5 euroko aldea, 4 bonoetan 20 euroko aldea guztira, Ordiziako Udalak jarriko du, Ordizian merkataritza elkartearen bitartez.

Los objetivos del programa Bonos compra de Ordizia son:

Incentivar la compra en el comercio del municipio para impulsar el desarrollo económico de un sector que se encuentra gravemente afectado por el cambio de hábitos de la ciudadanía a la hora de adquirir bienes.

Revitalizar el sector animando a la ciudadanía a hacer las compras en el municipio y entre todos poder mantener vivas las calles de Ordizia.

Dinamizar la actividad de servicios, comercio y hostelería en el municipio, actuando como complemento y refuerzo de otras medidas.

La dinámica de consolidación empresarial que puede generar este tipo de ayudas no se considera incompatible con el libre juego de las fuerzas competitivas, en tanto en cuanto se realiza con la mínima restricción competitiva y con medidas para evitar la concentración del beneficio indirecto en unas pocas empresas de distribución comercial.

Por todo ello, y de conformidad con la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; y de conformidad con la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local,

#### RESUELVO

Aprobar las normas especiales reguladoras para la concesión directa de ayudas urgentes a través de la asociación de comerciantes de Ordizia Ordizian para ayudar a la ciudadanía en la adquisición de bienes de consumo, como medio para dinamizar el entorno urbano y fortalecer el comercio minorista, cuyas actividades han quedado suspendidas en virtud de lo dispuesto en el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el Estado de Alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionado por el Covid-19, o han tenido una reducción del 75 % en su facturación, siendo éstas las siguientes:

#### Artículo 1. Objeto.

El objeto de esta convocatoria es aprobar las bases del programa bonos de compra en Ordizia para dinamizar el entorno urbano de Ordizia, fortalecer el consumo por canal presencial en establecimientos minoristas del municipio de Ordizia y que se repartirán a las familias, entregando un bono por cada vivienda habitada.

#### Artículo 2. Crédito disponible.

Para esta convocatoria se destina la cantidad de 93.000 euros con cargo a la partida presupuestaria 1.480.01.430.00.0261 (2020) Bonos para la ciudadanía para paliar los daños Covid19.

#### Artículo 3. Actividad subvencionable y ámbito de aplicación.

1. La compra de bienes de compra personal y familiar en establecimientos de servicios, comerciales minoristas o hosteleros del municipio de Ordizia, a través de bonos que se repartirán entre la población para canjearlos en los establecimientos que lo soliciten y se adhieran al programa.

Se repartirá un bono por cada vivienda de Ordizia.

Cada uno de estos bonos tendrá un valor de 20 € (divisible en 4 bonos de 5 €), y cada persona beneficiaria del bono deberá realizar un gasto de 15 euros para conseguir un descuento de 5 euros, por lo que aportando 10 euros podrá adquirir productos valorados en 15 euros. Si se utilizan los cuatro bonos a la vez, pagando 40 euros se adquirirán productos valorados en 60 euros. La diferencia de 5 euros en cada bono, en los 4 bonos la diferencia de 20 euros en total, será aportada por el Ayuntamiento de Ordizia a través de la asociación de comerciantes Ordizian.

2. Diruz lagundu daitekeen jardueraren esparruan sartzen dira martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez itxita egon diren txikizkako merkataritza guztiak edo, irekita egon arren, fakturazioan % 75eko murrizketa izan dutenak.

**4. artikulua. Laguntzen izaera.**

Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzat hartuko dira.

**5. artikulua. Laguntzak kudeatzeko organoa.**

Ordizian merkatarik elkarteari dagokio, udalarekin sinatutako hitzarmen bidez, deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea. Kudeaketa lan horiek Udalaren errebisioa izango dute.

**6. artikulua. Onuradunak.**

Ordizian bizi eta adinez nagusi diren pertsona fisikoak bonu hauen onuradunak izango dira, betiere ezarritako baliabide eta bideetatik eskuratu badituzte. Ordiziako etxe bakoitzeko bono bat banatuko da.

**7. artikulua. Erakunde laguntzailea.**

1. Ordizian Ordiziako merkatarik elkarteari elkarlanean banatuko dira erosketa bonuen trukearen bidezko diru-laguntzen funtsak, eta diru-laguntzaren baldintzak eta eskakizunak betetzen direla egiaztatzen ere bai.

Lankidetzak hitzarmenaren bidez gauzatuko da elkarlana, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorra izango baititu ardatz, eta lege horietan eta diru-laguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzako garapen xedapeneetan aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaio erakundeari.

2. Lankidetzak hitzarmena sinatu eta Ordizian elkarrekin bi astetik behin aurkeztutako zuriaketaren arabera, eta Udalak kontuak berrikusita, ordainketa bideratuko dio Ordizian elkarteari eta honek banatuko du establezimenduen artean, bakoitzak aurkeztutako bonu eta egiaztagirien arabera.

**8. artikulua. Parte hartzeko baldintzak.**

1. Ordiziako erosketa bonuen programan parte hartzeko aukera izango dute bonuak hartu eta ordainketa modu gisa onartzen dituzten Ordiziako establezimenduek. Hauek pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke, baina ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

a) Jardueraren helburu nagusia kontsumitzaileari kontsumo produktuak, zerbitzuak eta ondasunak zuzenean saltzea izatea.

b) Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan alta emanda egotea.

c) Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz itxita egotea edo, irekita egon arren, fakturazioa % 75 murriztea.

d) Zerga betebeharretan, bai Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin eguneratuak egotea eta, hala badagokio, diru-laguntzak itzultzeko betebeharretan.

e) Ordiziako Udalarekin zorrik ez izatea.

2. Alde horretatik, beste betebeharrak batzuk kontuan izan behar balira, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gutxienezko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko edozein agiri.

Horiek betetzen ez dituzten entitateek aurkeztutako eskaerak ez dira kontuan hartuko eta ez dira onartuko.

2. El ámbito de la actividad subvencionable comprende todo el comercio minorista que haya estado cerrado por el Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo, o que a pesar de estar abiertos hayan tenido una disminución del 75 % en su facturación.

**Artículo 4. Naturaleza de las ayudas.**

Las ayudas que se concedan en el marco del presente programa tendrán la consideración de subvenciones a fondo perdido no reintegrables.

**Artículo 5. Órgano de gestión de las ayudas.**

Corresponderá a la Asociación de comerciantes Ordizian, a través de un convenio firmado al efecto con el ayuntamiento, la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente convocatoria. Dichas tareas de gestión serán supervisadas por el Ayuntamiento.

**Artículo 6. Personas beneficiarias.**

Se consideraran personas beneficiarias de estos bonos las personas físicas mayores de edad residentes en Ordizia que los hayan obtenido por los medios y cauces establecidos. Se reparará un bono por cada vivienda de Ordizia.

**Artículo 7. Entidad colaboradora.**

1. La distribución de los fondos subvencionables mediante el canje de los bonos y la comprobación del cumplimiento de las condiciones y requisitos de la subvención se hará con la colaboración Ordizian, asociación de comerciantes de Ordizia.

La colaboración se instrumentará mediante convenio de colaboración, que se regirá por lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y de la General de Subvenciones, aplicándose a la entidad el régimen jurídico previsto en dichas Leyes y en sus disposiciones de desarrollo para las entidades colaboradoras en la gestión de subvenciones.

2. Una vez suscrito el convenio de colaboración y en función de la justificación presentada cada 15 días por Ordizian, y previa supervisión por el Ayuntamiento, la aportación será ingresada en la cuenta de la asociación Ordizian, que la repartirá entre los establecimientos atendiendo a los bonos y tickets presentados por cada uno.

**Artículo 8. Condiciones de adhesión.**

1. Podrán adherirse al programa bonos de compra en Ordizia, aceptando comercializar y recibir el mismo como medio de pago, aquellos establecimientos del municipio de Ordizia que, con independencia de que sean personas físicas o jurídicas, cumplan los siguientes requisitos:

a) Tener como objeto preferente de su actividad el de la venta directa al consumidor/a de productos, servicios y bienes de consumo.

b) Estar dado de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas.

c) Que haya estado cerrado por el Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo o que a pesar de estar abiertos hayan tenido una disminución del 75 % en su facturación.

d) Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y Hacienda y, en su caso, de las obligaciones de reintegro de subvenciones.

e) No tener deudas en el Ayuntamiento de Ordizia.

2. En tal sentido, sin perjuicio de cuantas otras formalidades pudieran estar obligadas a cumplir, el Ayuntamiento podrá solicitar en cualquier momento cualquier documento acreditativo del cumplimiento de tales requisitos mínimos.

No se tendrán en cuenta ni admitirán las solicitudes presentadas por entidades que no cumplan con los mismos.

**9. artikulua.** Programan parte hartzeko epea eta aurkezteko modua, eta aurkeztu beharreko agiriak.

Ordiziako herritarrei banatuko zaizkien erosketa bonuen programan parte hartu nahi duten saltokiek oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita aste beteko epean egin beharko dute eskaera.

Programan parte hartzeko interesa izan dezaketen pertsonentzat atxikitzeko eskaera orria Ordiziako Udalaren webgunean egongo da eskuragarri:

[www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus).

Eta baita Andre Mari kaleko 21 zenbakian dagoen bulegoan, edo e-mail bidez helbide elektronikoko honetara eskatuta:

[ordizian@ordizian.eus](mailto:ordizian@ordizian.eus).

Eskaerak Ordizian elkartearen bulegoan egin beharko dira, presentzialki edo e-mail bidez goian adierazitako helbide elektronikora bidalita.

Eskaerak Ordizian elkartearen bulegoan aurkezteko ordutegia honakoa da:

Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00.

Ordizian elkarteak banakako atxikimendu eskaera guztiak udal erregistroan aurkeztuko ditu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera orria.
- Pertsona fisikoak izanez gero, eskatzailearen NANA.
- Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKren kopia.
- Hauetako frogagiri bat aurkeztea:

Covid-19ak eragindako aldi baterako enplegu erregulazioko espediente bat egiaztatzen duena, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan zehaztutakoarekin bat. Edo Covid-19ak eragindako osasun krisialdia kudeatzeko Alarma Egoera deklaratu izanaren ondorioz autonomoentzako aldi baterako jardura eten izanagatik ez ohiko prestazioaren titular dela egiaztatzen duena (CATA) martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan araututa bezala.

Aurrez aipatutako agiriak aurkezten ez baditu, 2020ko apirilko fakturazioa gutxienez % 75tean murriztu dela egiaztatuko du. 2019ko urritik 2020ko martxora bitarteko hileko batez bestekoarekin alderatuta.

**10. artikulua.** Parte hartuko duten saltokien betebeharrak.

Ordizian erosteko bonuen programan parte hartzeko eskaera orria aurkeztu duten saltokien betebeharrak hauek izango dira:

- Atxikitako dendak konpromisoa hartzen du programara atxikita dagoela adierazten duen ikur itsaskorra eta publizitate materialak saltokian jaso eta ikusteko moduan jartzeko.
- Atxikitako dendak eskuratzaileen nortasuna kontrolatzeko konpromisoa hartzen du, bono bakoitzean eroslearen izena idatzita (bono bat baino gehiago erabiliz gero bakarrean jarrita nahikoa litzateke).
- Hobaritutako zenbatekoaren itzulketa eskatzeko, dendak salmentaren frogagiriak; hau da, behar bezala betetako erosketa bonua eta faktura edo erosketa tiketa Ordizian elkartearen bulegoan utzi beharko ditu.
- Erosketa bonuen erabiltzaileei ez zaie itzuliko erosketaren eta erosketa bonuaren balioaren arteko diferentzia.
- Erosketa bonuen bidez erositako ondasunen itzulketa politikari dagokionez, saltoki bakoitzak zehaztuko du noiz eta nola egin itzulketa. Halere, erosketa bonuarekin eskuratutako

**Artículo 9.** Plazo y modo de presentación, y documentación a presentar.

El plazo para que los establecimientos comerciales puedan adherirse al programa bono de compra que se repartirán a la ciudadanía de Ordizia empezará al día siguiente desde su publicación y finalizará en el plazo de una semana.

El formulario de adhesión estará a disposición de las personas interesadas en la página web del Ayuntamiento de Ordizia:

[www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus).

Y también en la oficina de la asociación Ordizian, calle Santa María n.º 21, o solicitándolo en por e-mail en la siguiente dirección:

[ordizian@ordizian.eus](mailto:ordizian@ordizian.eus).

Las solicitudes se realizarán en la oficina de la asociación Ordizian, tanto de manera presencial como vía e-mail enviándolo a la dirección electrónica arriba indicada.

El horario de la oficina de la asociación Ordizian para presentar las solicitudes es el siguiente:

De lunes a viernes: 9:00-14:00.

La asociación Ordizian presentará todas las solicitudes de adhesión individuales en el registro del Ayuntamiento.

Documentación a presentar:

- Solicitud.
- En el caso de ser persona física, DNI del solicitante.
- En el caso de ser persona jurídica, copia del CIF del solicitante.
- Presentar uno de los siguientes justificantes:

Justificante que acredite un ERTE por Covid-19, de conformidad con lo establecido en el artículo 22 del Real Decreto-ley 8/2020, de 17 de marzo. O justificación que acredite ser titular de la prestación extraordinaria por cese temporal de actividad para autónomos (CATA), como consecuencia de la declaración del Estado de Alarma para la gestión de la crisis sanitaria provocada por Covid-19 (regulada en el artículo 17 del Real Decreto Ley 8/2020, de 17 de marzo).

En caso de no presentar la documentación anteriormente indicada, se comprobará que la facturación de abril de 2020 se ha reducido al menos en un 75 % en comparación con la media mensual de octubre de 2019 a marzo de 2020.

**Artículo 10.** Obligaciones del establecimiento adherido.

El establecimiento adherido al programa bonos de compra en Ordizia a través de la suscripción de la solicitud de adhesión, adquirirá las siguientes obligaciones:

- El comercio adherido se compromete a la recepción y colocación del distintivo adhesivo que acredita la adhesión al programa y los materiales publicitarios en un lugar visible del establecimiento.
- El comercio adherido se compromete a realizar el control de la identidad de las personas adquirientes, anotando en cada bono (si se utiliza más de uno a la vez en un solo bastaría) el nombre de la persona compradora.
- Para solicitar el reembolso del importe bonificado, el comercio deberá depositar la documentación acreditativa de la venta (bono debidamente cumplimentado y factura o ticket de compra) en la oficina de la asociación Ordizian.
- No se devolverá a las personas usuarias de los bonos dinero en metálico sobre la diferencia entre la compra y el valor del bono.
- La política de devoluciones de los bienes comprados mediante el bono será la que cada establecimiento determine en cuanto a plazo y forma de la devolución. Ello no obstante, en

produktua itzultzen bada, ez da eskudirutan itzuliko. Aitzitik, saltoki bereko beste produktu batekin ordezkatu da, edo erosleak ordaindutako zenbatekoa eskudirutan ordainduko zaio; kasu horretan, erosketa bonuen deuseztapenaren berri eman beharko da, eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko du saltokiak.

Parte hartutako saltokiekin harremanetan jarri ahal izango da, funtzionamendua egiaztatzeko eta oro har prozesuaren eta programaren inguruan zer iritzi duten egiaztatzeko.

#### 11. artikulua. Erakunde laguntzailearen betebeharrak.

1. Ordizian merkatari elkarteak, diru-laguntza kudeatzen laguntzen duen erakundea den aldetik, jarduera hauek egingo ditu:

a) Programa orokorrean hedatzea, bere webgunean, sare sozialetan eta komunikabideetan, bai banaka, txikizkako saltoki guztiei.

b) Interesa duten saltokiei informazioa ematea eta programarako atxikimendua formalizatzeko laguntza ematea.

c) Hobaridun salerosketa bakoitzaren eskakizunak bete direla egiaztatzen kolaboratzea; salerosketa hori bonuekin eta faktura edo erosketa tiketa aurkeztuta egiaztatuko da.

d) Erosketa bonuen Kudeaketa, establezimendu bakoitzari dagozkion kopuruak banatuz, Ordiziako Udalak 15 egunean behin bideratuko dion kopuru orokorretik.

e) Udalarri Kudeaketaren berri ematea, eta bonoen erabileraren justifikazioa aurkeztea.

2. Jarduketa horiek gauzatzean, negozioaren eta pertsonen datuei dagokienez konfidentziasun eta isiltasun betebeharrak bete beharko ditu. Egiaztapen lanak egin ondoren, dokumentazio guztia Turismo eta Merkataritza Sailera bidali beharko da.

Erabat debekatua dago establezimenduetan diskriminazio edo tratu desberdintasunak egotea, batez ere elkarteko kide izatearekin edo ez izatearekin.

#### 12. artikulua. Erosketa bonuen banaketa.

1. Udalak banatuko dizkie erosketa bonuak herritarrei, etxe bakoitzeko bat banatuz, eta programa honi atxikitako establezimenduan erabiliko dira. Gehienez ere 20 €-ko deskontu bonuak banatuko dira, 5 €-ko deskontu bonutan zatitu daitezkeena. Erosketa bonu hauek programa barruan lau erosketa ekitaldi ezberdinetan erabili daitezke, edo euren artean nahi bezala elkartuta.

2. Programa honi atxikitako establezimendu bakoitzak bere gain hartuko du onartutako erosketa bonuak kontrolatzeko ardura.

#### 13. artikulua. Diru-laguntzen indarraldia eta programaren egutegia.

1. Ordizian kontsumitzeko erosketa bonuak, ordainketa modu gisa, Ordiziako udalerrian bakarrik erabili ahal izango dira.

2. Herritarren artean banatutako erosketa bonuak irailaren 30era bitartean erabili ahal izango dituzte soilik programari atxikitako establezimenduetan. Epe hori igarota, ez da erosketa bonurik onartuko.

3. Kasu guztietan, data horiek aldatu ahal izango dira, antolaketa inguruabarrek edo bestelako arrazoiek hala gomendatzen badute, eta horren berri emango da egoitza elektronikoa.

#### 14. artikulua. Programan parte hartu duten saltokietan jaso dituzten erosketa bonuak trukatzeko prozedura.

Herritarren artean banatutako bonoen trukea egiteko, jasotako erosketa bonuak eta erosketaren faktura edo tiketa eraman beharko dira Ordizian elkartearen bulegora. Elkarte bonuak jasotzen joango da eta trukea 15 egunean behin burutuko

caso de devolución del producto adquirido con el bono, no se procederá a la restitución del importe adicional, sino a su sustitución por otro producto del mismo establecimiento o a la devolución en metálico del importe efectivamente abonado por la persona compradora, debiendo en este caso comunicar la anulación del bono y debiendo restituir el importe que el establecimiento hubiese percibido.

Los establecimientos adheridos podrán ser contactados para verificar el funcionamiento y su opinión sobre el proceso y el programa en general.

#### Artículo 11. Obligaciones de la entidad colaboradora.

1. La asociación de comerciantes Ordizian, en su condición de entidad colaboradora en la gestión de la subvención, realizará las siguientes actuaciones:

a) La difusión del programa, tanto la general a través de su página web y de las redes sociales, como la individualizada a todos los comercios minoristas.

b) La información a los comercios interesados y la asistencia a los mismos para la formalización de la adhesión al programa.

c) Colaborar en la verificación del cumplimiento de los requisitos de cada compraventa bonificada, documentada en un bono y en una factura o ticket de compra.

d) La gestión de los bonos, repartiendo las cantidades correspondientes a cada establecimiento, a partir de la cantidad global que el Ayuntamiento de Ordizia le abonará cada 15 días.

e) Dar cuenta al ayuntamiento de la gestión realizada y la justificación del uso de los bonos.

2. En la ejecución de estas actuaciones deberá observar los deberes de confidencialidad y sigilo en lo que se refiere a los datos de negocio y de personas. Una vez realizadas las actuaciones de comprobación deberá enviar toda la documentación al Departamento de Turismo y Comercio.

Está absolutamente prohibida cualquier discriminación o trato desigual a los establecimientos, especialmente el basado en el hecho de ser o no un establecimiento asociado de la asociación.

#### Artículo 12. Distribución de bonos.

1. La distribución de bonos a la ciudadanía se realizará por parte del Ayuntamiento, repartiendo uno por cada vivienda, y su utilización se realizará en los establecimientos adheridos a este programa. Se repartirá un bono de 20 € de descuento por persona, divisible en bonos de descuento de 5 €. Los bonos podrán utilizarse hasta en cuatro actos de compra dentro del periodo del programa, o agrupándolos como se quiera.

2. Cada establecimiento adherido a este programa será el responsable del control de los bonos aceptados.

#### Artículo 13. Vigencia de las ayudas y calendario del programa.

1. La validez de los Bonos consumo en Ordizia como medio de pago se limitará en exclusiva al municipio de Ordizia.

2. Los bonos podrán utilizarse exclusivamente en los establecimientos adheridos al programa hasta el 30 de septiembre. Transcurrido dicho plazo no se aceptará ningún bono.

3. En todos los casos, estas fechas podrán modificarse si las circunstancias u otras razones organizativas así lo aconsejaren, dando la oportuna publicidad de ello en la sede electrónica.

#### Artículo 14. Procedimiento de canje de los bonos recibidos por los comercios adheridos al programa.

El canje deberá efectuarse mediante entrega de los bonos recibidos junto con la factura o el ticket de compra en la oficina de la asociación Ordizian. La asociación ira recopilando los bonos y el canje se efectuará una vez cada 15 días. El importe

da. Hobariaren xede den zenbatekoa dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da, jaso eta hamabost eguneko epean eta banku transferentzia bidez.

*15. artikulua. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.*

Ordiziako Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzen jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.

Saltoki atxikiek ez-betetzen bat eginez gero, Ordiziako Udalak erosketa bonuen programara duten atxikipena bertan behera utzi dezake, eta ez-betetzearen ondoriozko neurriak aplikatu.

Atxikitako establezimenduak behartuta daude Ordiziako Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

*Xedapen gehigarria.*

Oinarri hauetan ezarri gabeko guztiari dagokionez, xedapen hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

objeto de bonificación será ingresado una vez realizada la comprobación de la documentación, en el plazo de quince días desde su recepción y mediante transferencia bancaria.

*Artículo 15. Inspección e incumplimientos.*


El Ayuntamiento de Ordizia, se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de ayudas.

En el supuesto de que se operase algún incumplimiento por parte de los establecimientos adheridos, el Ayuntamiento de Ordizia, podrá cancelar la adhesión de los mismos al programa bonos consumo de Ordizia y aplicar las medidas derivadas del incumplimiento.

Los establecimientos adheridos se obligan a facilitar cuanta información sea requerida por el Ayuntamiento de Ordizia en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.

*Disposición Adicional.*

En todo lo no previsto en estas bases se estará a lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones; en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



Ordiziako Udala

2020IMER001

**ERANSKINA: COVID-19AREN ONDORIOZ HERRITARREI KONTSUMOA SUSPERTZEKO BANATUKO ZAIZKIEN BONOEN PROGRAMAN PARTE HARTZEKO ESKAERA ORRIA**

ANEXO: FORMULARIO DE ADHESION AL PROGRAMA DE BONOS REPARTIDOS A LA CIUDADANIA PARA PROMOVER EL CONSUMO LOCAL DEBIDO AL COVID-19

**ESKAERA AURKEZTEN DUENA / SOLICITANTE:**

Izen-abizenak/ nombre y apellidos:	NA-IFK / DNI-CIF	Generoa: <input type="checkbox"/> G / H <input type="checkbox"/> E / M <input type="checkbox"/> X
Helbidea / dirección:	K.P. / C.P.:	Herria / población
Telefonoa / teléfono:	e-posta / e-mail:	
<b>Eskaera egiten dut:</b>	<b>Realizo la solicitud:</b>	
<input type="checkbox"/> Nire izenean / en mi nombre	<input type="checkbox"/> Beste baten izenean / en representación	

**ORDEZKATUTAKO PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOA (norbere izenean arituz gero EZ BETE)**  
**PERSONA FÍSICA O JURIDICA REPRESENTADA (NO RELLENAR en caso de actuar en nombre propio)**

Izen-abizenak/nombre y apellidos:		
Sozietatearen izena: Razón social:	NA-IFK / DNI-CIF	Generoa: <input type="checkbox"/> G / H <input type="checkbox"/> E / M <input type="checkbox"/> X
Establezimenduaren izen komertziala / nombre comercial del establecimiento:		Herria / población
Helbidea / dirección:	K.P. / C.P.:	
Telefonoa / teléfono:	e-posta / e-mail:	

\*Kasu honetan ahalorde eskriturak erantsi beharko dira edo Udalean interesatuarekin batera aurkeztu ordezkaritza emateko (Apud-Akta)

\* En este caso habrá que adjuntar escrituras de poderes o presentarlas junto con la persona interesado en el Ayuntamiento para otorgar la representación (Acta-Apod)

Jakinarazpena bidaltzeko **HELBIDEA**(aurkezten duen pertsonaren helbide bera bada **EZ BETE**):  
**DIRECCIÓN** para recibir las notificaciones (**NO RELLENAR** si se repite el de la persona solicitante)

Izen-abizenak/nombre y apellidos:		
Helbidea / dirección:	Telefonoa / teléfono:	e-posta / e-mail:

**ESKABIDEAREN DATUAK / DATOS DE LA SOLICITUD:**

<input type="checkbox"/> Ordiziako Udalak 2020ko maiatzaren 25ean onartutako COVID-19aren ondorioz herriko kaleetako kontsumoa suspertzeko bonoen programan, parte hartu nahi dut / <i>Quiero participar en el programa de bonos para promover el consumo local debido al COVID-19 aprobada por el Ayuntamiento de Ordizia el 25 de mayo de 2020.</i>
<input type="checkbox"/> Oinarrian aipatutako baldintza guztiak onartzen ditut. <i>Acepto todas las condiciones recogidas en las bases.</i>
<input type="checkbox"/> Oinarrietan ezarritako eskakizunak betetzen ditudala adierazten dut. <i>Declaro que cumplo todos los requisitos establecidos en las bases.</i>
Bonuen trukea jasotzeko kontu korrontearen zenbakia / <i>Número de la cuenta corriente para recibir el canje de los bonos:</i>
Beste zerbait / <i>Alguna otra cosa:</i>

<b>Tokia eta eguna / Lugar y fecha:</b>	<b>Sinadura / firma:</b>

<b>Datu babesari buruzko oinarrizko informazioa</b>	
<b>Tratamenduaren arduraduna</b>	Ordiziako Udala Kale Nagusia N°24, 20240, Ordizia (Gipuzkoa)  Datuak babesteko ordezkaria: <a href="mailto:dbo@ordizia.eus">dbo@ordizia.eus</a>
<b>Helburua</b>	Udalerriko bizilagunak jasotzen dituen administrazio-erregistroa kudeatzea, udalerriko ohiko bizilekuaren froga baitira.
<b>Legitimazioa</b>	Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 8.1 eta 2. artikulua: datuen tratamendua, legezko betebeharragatik, interes publikoagatik edo botere publikoen egikaritzagatik.
<b>Komunikazioen hartzailak</b>	Datuak Estatistikako Institutu Nazionalari, Euskal Estatistika Erakundeari, Eusko Jaurlaritzari eta arlo horretan eskumena duten beste administrazio publiko batzuei jakinarazi ahal zaizkie.
<b>Eskubideak</b>	Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak baliatzeko eskubidea du, informazio gehigarrian azaltzen den bezala. Baita Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erreklamazioa aurkeztea ere.
<b>Informazio gehigarria</b>	Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu gure webguneko datuen babesari buruzko atalean: <a href="http://www.ordizia.eus">www.ordizia.eus</a>
<b>Información básica sobre protección de datos</b>	
<b>Responsable del tratamiento</b>	Ordiziako Udala Kale Nagusia N°24, 20240, Ordizia (Gipuzkoa)  Delegado de protección de datos: <a href="mailto:dbo@ordizia.eus">dbo@ordizia.eus</a>
<b>Finalidad</b>	Gestión del registro administrativo donde constan los vecinos y vecinas del municipio y que constituyen prueba de residencia y de domicilio habitual en este.
<b>Legitimación</b>	Artículo 8.1 y 2 de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales: Tratamiento de datos por obligación legal, legal, interés público o ejercicio de poderes públicos.



<b><i>Destinatarios de comunicaciones</i></b>	Los datos pueden ser comunicados al Instituto Nacional de Estadística, al Instituto Vasco de Estadística, al Gobierno Vasco y a otras Administraciones Públicas con competencia en la materia.
<b><i>Derechos</i></b>	Tiene derecho a ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación, como se explica en la información adicional. Así como presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección Datos.
<b><i>Información adicional</i></b>	Puede consultar la información adicional y detallada sobre protección de datos en el apartado de protección de datos de nuestra página web: <a href="#">Indicar página o enlace web del Registro de Actividades de Tratamiento</a>